

EL CASO SARAYAKU Arturo Hortas (30:00)

Ekuatoreko Amazonian, Pastaza probintzian bizi den indigenen komunitatea da Sarayaku (“Artozko Ibaia”). Kichwa nazionalitateko 1200 lagun bizi dira bertan, eta asanblada bidezko demokrazia zuzenean datza haien gobernu-sistema. 2002an, Argentinako CGC konpainia (Compañía General de Combustibles) sarayakutarren lurraldeetan sartu zen ilegalki, Ekuatoreko armadak lagunduta, eta 1.500 kg pentolita lurperatu zuen –proba sismikoak egiteko erabilitako lehergarria–. Kasua Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren aurrean aurkeztu zen; aurrekari historikoa izan zen hura indigenen eskubideen aldeko borrokan. Konstituzioaren eta LANEren 169. Hitzarmenaren arabera, kontsulta aske eta informatua egin behar zaie herri indigenei, ustiapen-lanak hasi aurretik. Gaur egun, XI. Petrolio Errondaren mehatxua dute gainean, indigenen 7 nazionalitateen bizileku diren 3000000 ha-ri eragingo diena.